



ESNATU NAIZ kabareta

Donostiako Poltsiko Antzerkiko Sorkuntza Deialdiko proiektu finalista

SINOPSISIA

Elurrek Londresko **The Pink Flamingo** klubean egiten du lan. Dantzatzeaz eta kantatzeaz gain, **bere showa** izatea lortu du eta gauero jende asko joaten da bera ikustera. Harrigarria izan da Elurren **eraldaketa**. Izan ere, duela 10 urtera arte **baserrian** bizi zen bere familiarekin. Nola demontre lortu du baserritan euskaldun honek underground mugimenduko modako **artista** izatea Londresen? Zer **bizipen** izan ditu Elurrek azken 10 urte hauetan? Eta zergatik da Beyoncé guzti honen erruduna?

Esnatu Naiz **antzerkia, dantza eta musika** nahasten dituen **showa** da. **Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea** ditu hizpide, besteak beste, baina batez ere, gure nortasunarekin bat egin eta **aske bizitzeko gonbitea** egiten digu.

LANTZEN DITUEN GAIAK

Ikuskizun honek kontatzen digun istorioa xelebrea izan arren, **galdera sakona** proposatzen digu: **gure nortasuna eta gure bizimodua bat al datoz?** Beste modu batean galdetuta: gure nahiek, beharrek eta ametsek zer leku dute gure egunerokoan?

Bere azken 10 urteko bizipenen kontakizuna egitearekin batera, hainbat gai zehatzei buruzko **hausnarketa** egingo du Elurrek obra honetan: harreman sozialak, generoa, auto-estimua, lotsa eta beldurrak, sexualitatea, sormena, bizipoza... gizartean errotuta dauden **hainbat ohitura eta arau zalantzan** jartzeaz gain, **LGBTI+ komunitatearen eskubideen aldeko apustua** egin nahi dugu obra honen bitartez.

FITXA ARTISTIKOA:

IZENBURUA: Esnatu Naiz

IDEIA, GIDOIA ETA ZUZENDARITZA: Andoni Mutiloa

AHOLKULARITZA ETA KANPO BEGIRADA: Amancay Gaztañaga

ARTISTA: Andoni Mutiloa

MUGIMENDU ZUZENDARITZA: Eneko Balerdi

EKOIZPENA: Elur Etxea

NORI ZUZENDUTA: Ikusle helduak

IRAUPENA: Bertsio laburra: 37 minutu / Bertsio luzea: 50 minutu

HIZKUNTZA: Euskara

ESTREINALDIA: Bertsio laburra: Donostiako Poltsiko Antzerki Jaialdia, 2020ko urtarrilaren 29an / Bertsio luzea: Hernaniko Kultur Etxea, irailaren 30ean

IKUSKIZUNAREN BEREZITASUNAK

Esnatu Naizek **antzerkia, dantza eta musika** nahasten ditu. Hitz bakar batekin laburbilduta, **KABARETA** da.

Dantza estilo ezberdinen bilduma ere bada Esnatu Naiz: **euskal dantza, garaikidea, burlesquea, stripteasea, performancea...** teoriarik ez duten hainbat dantza estilo uztartzen ditu show honek Elurren bizipenen bitartez.

ESPAZIOA ETA ESZENOGRAFIA

Kabareta izan arren, Esnatu Naiz **formatu txikiko ikuskizuna** da. **Artista bakarra** du ohol-tza gainean eta **eszenografia** ere **sinplea** da: piano aulki bat, mahai txiki bat, neoizko flamenko arrosa bat, arropa zintzilikatzeko gurditxoa, arropa eta osagarri batzuk. Hori dela eta, **eszenatoki txikietan taularatzeko proposa** da: **antzoki txikiak, kultur etxeetako aretoak, gaztetxeak, kafe antzokiak...** Dantzako koreografiak izan arren, espazio mugatuetan dantzatzeko modukoak izango dira, publikoarengandik gertu.

BEHAR TEKNIKOAK

- Eszenatokiaren gutxieneko neurriak: 4 x 4 metro
- Argiak: Gutxienez 4 foku PC. Horietatik bi arruntak eta beste biak urdinean filtratuta. Posible bada, beste pare bat foku kolore beroetan (gorria, laranja).
- Soinua: mahai txiki bat, musika eta audioa bertatik kontrolatzeko.
- Musika jarri ahal izateko gailu elektronikoko bat (ordenagailua izan liteke).
- Bafle bat ala bi.
- Diadema mikro bat.

INFORMAZIO GEHIAGO:

- Elur Etxea [facebooken](#):
- Esnatu Naiz. [Argazkiak](#):
- Esnatu Naiz. Bertsio luzearen bideoa [youtuben](#):
- Bertsio luzearen estreinaldiaren harira [Berrian](#) argitaratutako erreportajea:
- [Tolosaldeko 28 Kanalak](#) egindako bideoa:

ANDONI MUTILOA (Hernani, 1976. urtea). Artista Kabaretari Lotsagabea.

Ikasketak:

- Kazetaritza lizentziatua (EHU. 1999)
- Atzerriko Hizkuntzako Magisteritza diplomatua (EHU. 2004)

Lana:

Kazetari moduan:

- Euskadi Irratiko esatari eta erredaktore 8 urtez (2009-2017)
- Gaztea irratiko esataria 6 urtez (2001-2007)

- ETBko hainbat saiotako erredaktore: Hitzaro/Lengua Viva, informatiboak, Esta Es Mi Gente...

Irakasle moduan:

- Ingeleseko eta plastikako irakaslea Iruneko Txingudi eskolan (2008-2009)
- Euskara irakaslea Boiseko ikastolan (Idaho. AEBak. 2007-2008)
- Ordezko irakaslea hainbat eskola publikotan (2006-2007)

Artista moduan:

- **Esnatu Naiz** kabaretaren sortzaile, gidoilari, zuzendari eta aktorea. Estreinaldia 2020ko urtarrilean Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdian.

- Antzerkia, dantza, musika, kantua, performancea eta ikus-entzunezkoak lantzen dituen **Elur Etxea**ren sortzailea (2020).

- Esnatu Naiz kabareterako egindako Maitasunez Blai kantuaren sortzailea, Eñaut Gaztañagarekin batera. <https://www.youtube.com/watch?v=3tB1-yA1zSU>

- Errenteriako Eztena jaialdiko Aldarri sorkuntza. (antzerkia eta dantza) 2019.

- Florida (aktorea). Zestoako Antzerki eskola. Zuzendaria, Amancay Gaztañaga 2019.

- Dantzan Bat kolektiboko kidea. Performanceak naturan + bideoa 2018-2019.

- Dantza garaikidea 13 urtez 2008-2020

- Kontakt inprobisazioa 8 urtez 2013-2020. EHKIE elkarteko bazkidea.

- Donostiako Eskola Dantza taldeko kidea 15 urtez (1990-2005).

KONTAKTUA:

ANDONI MUTILOA

emaila: elur.etxea@gmail.com

telf.: 655748789

